

04

OSASUN-EGOERA

Laburpena

- 2013ko datuekin alderatuta, ezintasunik gabeko bizi-itxaropenak gora egin du gizonen artean, behera emakumeen artean. Ezintasunarekin bizi izandako urteak, berriz, igo egin dira emakumeetan, eta jaitsi gizonetan.
- Osasun ona edo oso ona dutela sentitzen duten pertsonen proportzioa etengabe handitu da bi sexuetan, 2002tik. Osasun ona dutela hautematen dutenen prebalentzia beti da txikiagoa emakumeetan gizonetan baino, adin-talde guztietan.
- Osasun ona dutela sentitzen duten pertsonen proportzioak behera egiten du eskala sozialean mailaz jaitsi ahala.
- Osasunarekin zerikusia duen bizi-kalitatea okerragoa da emakumeen artean gizonen artean baino, adin-talde guztietan. Desberdintasun hori areagotu egiten da adinean aurrera egin ahala eta ikasketa-maila txikiagoa dutenen artean.
- Euskal biztanleriaren osasun mentala antsietate- eta depresio-sintomen prebalentziaren bidez neurtuta nabarmen hobetu da bi sexuetan eta adin-talde guztietan, 2013rekin alderatuta.
- Jardueraren mugapen kronikoaren prebalentzian ez da aldaketarik izan gizonetan, eta pixka bat jaitsi da emakumeetan, 2013rekin alderatuta. Kronikotasunaren prebalentzia asko igo da 74 urtetik gorako gizonetan, eta behera egin du tarteko adin-taldeen artean.
- Gizonen % 42k eta emakumeen % 43k osasun-arazo kronikoren bat dute.



04

OSASUN-EGOERA

I. Ezintasunik gabeko bizi-itxaropena

• 1. GRAFIKOA

2018an, bizi-itxaropena 86,5 eta 80,3 urtekoa izan zen emakumeetan eta gizonetan, hurrenez hurren.

Ezintasunik gabeko bizi-itxaropena (EGBI) biztanleriaren osasunaren adierazle sintetiko bat da, heriotza-tasaren datuek emandako ikuspegia ezintasunaren datuek emandakoarekin uztartzen duena.

2013ren aldean, ezintasunik gabeko bizi-itxaropenak bilakaera desberdina izan du sexuaren arabera: gizonen artean 1,2 urte igo da, eta emakumeen artean 0,3 urte jaitsi. Ezintasunarekin bizitzako urteak (EBU), berriz, 0,5 urte igo dira emakumeetan, eta beste hainbeste jaitsi gizonetan.


2007ko datuekin alderatuta, ezintasunik gabeko bizi-itxaropenak 0,9 urte egin du gora gizonetan, eta 2,1 urte jaitsi emakumeen artean. Ezintasunarekin bizitzako urteak ugaritu egin dira bi sexuetan: 1,2 urte gizonetan eta 3,5 emakumeetan.

Hala guztizko bizi-itxaropena nola ezintasunik gabekoa, bai eta ezintasunarekin bizi izandako urteak ere, handiagoak izan dira emakumeen artean, gizonen artean baino. Bizi-itxaropena etengabe igotzen joan da 2002tik.

1. GRAFIKOA

Ezintasunik gabeko (EGBI) eta ezintasunarekin (EBI) bizi-itxaropenaren bilakaera, 2002-2018

Evolución de la esperanza de vida libre de discapacidad (EVLD) y con discapacidad (EVD), 2002-2018



04

OSASUN-EGOERA

II. Osasunaren autoebaluazioa

• 2. GRAFIKOA

Euren osasuna ona dela uste duten emakumezkoen proportzioa txikiagoa da, gizonena baino. 2018an, emakumeen % 84k eta gizonen % 87k osasun ona edo oso ona dutela esan dute. Proportzio horiek % 13 egin dute gora 2007koen aldean, eta % 7, berriz, 2013koen aldean.


• 3. GRAFIKOA

Osasunaren pertzepzioak okerrera egiten du adinarekin, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. 2002tik, osasun ona duten pertsonen proportzioa handitu da adin-talde guztietan, 75 urte eta gehiagoko emakumeen artean izan ezik, haien artean behera egin baitzuen 2013an, 2007ko datuekin alderatuta.

2. GRAFIKOA

Osasunaren pertzepzioaren bilakaera, 2002-2018
Evolución de la percepción de la salud, 2002-2018


Osasun onaren prebalentzia*
Prevalencia de buena salud*



3. GRAFIKOA

Osasunaren pertzepzioaren bilakaera adinaren arabera, 2002-2018
Evolución de la percepción de la salud según la edad, 2002-2018

Osasun onaren prebalentzia
Prevalencia de buena salud



*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011



04

OSASUN-EGOERA

II. Osasunaren autoebaluazioa

• 4. GRAFIKOA

Bi sexuetan, osasun ona dutela pentsatzen dutenen proportzioak behera egiten du gizarte-kласean behera egitearekin batera, eta alde handiena V. taldearen (langile ez-kualifikatuak) eta I. taldearen (zuzendariak, gerenteak, goi-teknikariak eta abar) artean ikusten da: 11 portzentaje-puntu emakumeetan eta 9 gizonetan.


• 5. GRAFIKOA

Halaber, ikasketa-maila handiagoa den heinean, osasun onaren pertzepzioa ere handiagoa da, bai gizonen artean, bai emakumeen artean.

4. GRAFIKOA

Osasunaren pertzepzioaren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2018
Desigualdades en la percepción de la salud por clase social, 2018

Osasun onaren prebalentzia*
Prevalencia de buena salud*




*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

5. GRAFIKOA

Osasunaren pertzepzioaren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2018
Desigualdades en la percepción de la salud por nivel de estudios, 2018

Osasun onaren prebalentzia*
Prevalencia de buena salud*



*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011



04

OSASUN-EGOERA

III. Osasunarekin zerikusia duen bizi-kalitatea

Osasunarekin zerikusia duen bizi-kalitatea Euroqol Eskala Analogiko Bisualaren (EAB-EQ) bidez neurtu da. Eskala horren balioak 0tik 100era bitartekoak dira. Muturreko puntu horiek imajina daitekeen osasunik txarrena eta onena adierazten dituzte, hurrenez hurren.

• 6. GRAFIKOA

Osasunarekin zerikusia duen bizi-kalitatea behera egiten du modu mailakatuan, adinak aurrera egiten duen heinean, eta handiagoa da gizonen artean, emakumeen artean baino. Izan ere, 15 urtetik 24 urtera bitarteko pertsonen artean, batez besteko puntuazioa 89koa da gizonen artean, eta 87koa emakumeen artean; aitzitik, 75 urtetik gorako pertsonen artean, 66koa eta 64koa dira, hurrenez hurren.


• 7. GRAFIKOA

Talde sozioekonomiko batekoa edo bestekoa izateak ere eragiten dio osasunarekin zerikusia duen bizi-kalitateari. EAB-EQ eskalaren batez besteko balioek behera egiten dute, oro har, eskala sozialean behera egitearekin batera.

6. GRAFIKOA

Osasunarekin zerikusia duen bizi-kalitatea adinaren arabera, 2018
Calidad de vida relacionada con la salud según la edad, 2018


EAB-EQaren batez besteko puntuazioa
Media de la puntuación EVA-EQ



7. GRAFIKOA

Osasunarekin zerikusia duen bizi-kalitatearen desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2018
Desigualdades en la calidad de vida relacionada con la salud por clase social, 2018

EAB-EQaren batez besteko puntuazioa*
Media de la puntuación EVA-EQ*



04

OSASUN-EGOERA

III. Osasunarekin zerikusia duen bizi-kalitatea


• 8. GRAFIKOA

Talde sozioekonomikoarekin gertatzen den bezala, ikasketa-maila handiagoa dutenek puntuazio handiagoa eman dute beren osasuna ebaluatzean, ikasketa-maila txikiagoa dutenek baino. EAB-EQ eskalan, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna da handiena lehen hezkuntza soilik dutenen edo ikasketa formalik ez dutenen artean, baina desberdintasunak bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenetan soilik du esangura garrantzi estatistikoa.

8. GRAFIKOA

Osasunarekin zerikusia duen bizi-kalitatearen desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2018 Desigualdades en la calidad de vida relacionada con la salud por nivel de estudios, 2018

EAB-EQaren batez besteko puntuazioa*
Media de la puntuación EVA-EQ*



*Adinaren arabera egokitua / Ajustada por edad



04

OSASUN-EGOERA

IV. Osasun mentala

• 9. GRAFIKOA

Osasun mentala, antsietate- eta depresio-sintomen prebalentziaren bidez neurtuta, nabarmen hobetu da bi sexuetan 2013tik 2018ra bitartean: emakumeetan, osasun mental txarraren prebalentzia % 34 jaitsi zen, % 24tik % 16ra; gizonetan, berriz, % 41 jaitsi zen, % 16tik % 9ra.


• 10. GRAFIKOA

Antsietate- eta depresio-sintomak dituzten pertsonen proportzioak gora egiten du adinarekin batera. Proportzio hori handiagoa da emakumeetan adin-talde guztietan. Sintoma horien prebalentzia inoiz erregistratutako txikiena da bi sexuetan, 75 urtetik gorako emakumeetan izan ezik.

9. GRAFIKOA

Osasun mentalaren bilakaera, 2002-2018
Evolución de la salud mental, 2002-2018

Antsietate eta depresioaren sintomen prebalentzia*
Prevalencia de síntomas de ansiedad y depresión*




*Adinaren arabera estandarizaturia, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

10. GRAFIKOA

Osasun mentalaren bilakaera adinaren arabera, 2002-2018
Evolución de la salud mental según la edad, 2002-2018

Antsietate eta depresioaren sintomen prebalentzia
Prevalencia de síntomas de ansiedad y depresión



04

OSASUN-EGOERA

IV. Osasun mentala

11. GRAFIKOA

Osasun mentala okerrera egiten du gizarte-klasean behera egitearekin batera. 2018an, antsietate- eta depresio-sintomen prebalentzia % 7koa izan zen I. taldeko gizonen artean, V. taldekoen prebalentziaren erdia (% 14). Emakumeetan, 15 portzentaje-puntuko aldea dago mutur bateko eta besteko gizarte-klaseen artean: % 11ko prebalentzia I. taldean, eta % 26koa V. taldean.


12. GRAFIKOA

Ikasketa-mailaren araberako gradiente nabariagoa da emakumeen artean antsietate- eta depresio-sintomen prebalentzian, gizonen artean baino. Bi sexuen arteko desberdintasuna handiagoa da hezkuntza-maila txikiagoa dutenetan.

11. GRAFIKOA

Osasun mentala desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2018
Desigualdades en la salud mental por clase social, 2018

Antsietate eta depresioaren sintomen prebalentzia*
Prevalencia de síntomas de ansiedad y depresión*




*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

12. GRAFIKOA

Osasun mentala desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2018
Desigualdades en la salud mental por nivel de estudios, 2018

Antsietate eta depresioaren sintomen prebalentzia*
Prevalencia de síntomas de ansiedad y depresión*



*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011



04

OSASUN-EGOERA

V. Ezintasuna

• 13. GRAFIKOA

2013an gertatu zen moduan, 2018an ere, ezintasunaren prebalentzia, jarduera-muga kroniko gisa neurtua (eguneroko bizitzako jarduerak egiteko muga), ohikoagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino. Emakumeen ezintasunaren prebalentzia portzentaje-puntu bat jaitsi da 2013ko datuekin alderatuta, eta orain % 9koa da. Gizonetan, 2018an, prebalentzia egonkor mantendu da, % 9an.


• 14. GRAFIKOA

Ezintasuna nabarmen ugartzen da adinarekin eta, 75 urtetik gorako adin-taldean, emakumeen % 36k eta gizonen % 26k pairatzen dute. Nabarmendu behar da bilakaera desberdina izan dutela adin-talde horretako gizonen eta emakumeen artean: emakumeetan ezintasunaren prebalentzia ez da aldatu 2013tik; aldiz, gizonetan 4 portzentaje-puntu igo da.

13. GRAFIKOA

Ezintasunaren bilakaera, 2002-2018
Evolución de la discapacidad, 2002-2018


Jardueraren mugapen kronikoaren prebalentzia*
Prevalencia de limitación crónica de la actividad*



14. GRAFIKOA

Ezintasunaren bilakaera adinaren arabera, 2002-2018
Evolución de la discapacidad según la edad, 2002-2018

Jardueraren mugapen kronikoaren prebalentzia
Prevalencia de limitación crónica de la actividad



*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011



04

OSASUN-EGOERA

V. Ezintasuna

• 15. GRAFIKOA

Bi sexuen kasuan, ezintasanaren maiztasunak mailaz maila gora egiten du, eskala sozialean behera egitearekin batera, eta IV. taldetik V. talderako jauzia oso nabarmena da, batez ere gizonen artean. Izan ere, I. taldeko gizonen % 5ek eta emakumeen %6k ezintasan-arazoak dituzte; V. taldekoen kasuan, ordea, gizonen % 13k eta emakumeen % 11k dituzte ezintasan-arazoak. Azpimarratzekoa da ezintasanaren prebalentzia handiagoa dela talde guztietako emakumeen artean, gizonen artean baino, V. taldean izan ezik (kualifikatu gabeko eskulangileak).


• 16. GRAFIKOA

Ezintasanaren prebalentziak gora egiten du ikasketa-mailak behera egiten duen heinean. Unibertsitate-ikasketak dituzten gizonen % 5ek eta emakumeen % 7k ezintasuna dute; eta ikasketa formalik ez dutenen edo lehen mailako ikasketak dituztenen artean, berriz, gizonen % 12k eta emakumeen % 13k.

15. GRAFIKOA

Ezintasanaren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2018
Desigualdades en la discapacidad por clase social, 2018

Jardueraren mugapen kronikoaren prebalentzia*
Prevalencia de limitación crónica de la actividad*




*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011

16. GRAFIKOA

Ezintasanaren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2018
Desigualdades en la discapacidad por nivel de estudios, 2018

Jardueraren mugapen kronikoaren prebalentzia*
Prevalencia de limitación crónica de la actividad*



*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011



04

OSASUN-EGOERA

VI. Arazo kronikoak

• 17. GRAFIKOA

Gizonen % 42k eta emakumeen % 43k osasun-arazo kronikoren bat dute. Kronikotasunaren prebalentziak gora egiten du adinarekin batera; hala, % 80tik gorakoa da 65 urtetik gorako pertsonen artean, eta % 90etik gorakoa 75 urtetik gorakoen artean.


• 18. GRAFIKOA

Osasun-arazo kronikoen maiztasuna handitu egiten da gizarte-mailan behera egin ahala; hala, V. taldeko gizonen % 46k eta emakumeen % 50ek arazo kronikoren bat dute, baina I. taldeko gizonen eta emakumeen % 37k eta % 36k soilik, hurrenez hurren, dituzte halako arazoak.

17. GRAFIKOA

Morbilitate kronikoa adinaren arabera, 2018
Morbilidad crónica según la edad, 2018


Arazo kronikoen prebalentzia
Prevalencia de problemas crónicos



18. GRAFIKOA

Morbilitate kronikoaren desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2018
Desigualdades en la morbilidad crónica por clase social, 2018

Arazo kronikoen prebalentzia*
Prevalencia de problemas crónicos*



*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011



04

OSASUN-EGOERA

VI. Arazo kronikoak


• 19. GRAFIKOA

Ikasketa-maila ere arazo kronikoen prebalentziarekin lotuta dago: unibertsitateko hezkuntza duten gizonen eta emakumeen % 36k arazo kronikoak dituzte; aldiz, lehen mailako ikasketak dituztenen artean, proportzioa handiagoa da, gizonen % 42k eta emakumeen % 43k baitituzte arazo kronikoak.

19. GRAFIKOA

Morbilitate kronikoaren desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2018 Desigualdades en la morbilidad crónica por nivel de estudios, 2018

Arazo kronikoen prebalentzia*
Prevalencia de problemas crónicos*



*Adinaren arabera estandarizatua, EAEko biztanleria 2011 / Estandarizada por edad, población de la CAPV 2011



04

OSASUN-EGOERA

VI. Arazo kronikoak

• 20. GRAFIKOA

Hipertentsioa eta kolesterol altua dira euskal biztanlerian maiz agertzen diren arazo kronikoak. Emakumeetan, horren ondoren maiz agertzen direnak artrosia, min dortsala eta tiroide-arazoak dira.


• 21. GRAFIKOA

Gizonen artean, berriz, hipertentsioaren eta kolesterol altuaren atzetik, arazo ohikoena diabetesa, min dortsala eta miokardioko infartu akutuz bestelako bihotzeko arazoak dira.

20. GRAFIKOA

Emakumezkoengan sarrienak diren arazo kronikoak, 2018
Problemas crónicos más frecuentes en las mujeres, 2018

Arazo kronikoen prebalentzia
Prevalencia de problemas crónicos



21. GRAFIKOA

Gizonezkoengan sarrienak diren arazo kronikoak, 2018
Problemas crónicos más frecuentes en los hombres, 2018

Arazo kronikoen prebalentzia
Prevalencia de problemas crónicos

